BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

413

EBAZPENA, 2013ko urtarrilaren 2koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Zerbitzu zuzendariarena, Eusko Legebiltzarrean ordezkatuta dauden alderdi politikoekiko mendekotasun organikoa duten fundazio zein elkarteentzako 2012ko diru-laguntzetara biltzeko dei egin zuen Kulturako sailburuaren 2012ko azararen 7ko Aginduaren babesean onuradun gertatutako entitateak, diru-laguntza jaso duten programak eta baita horietako bakoitzari esleitutako diru-laguntzaren zenbatekoa ere publiko egiten dituena.

Irailaren 30eko 164/2008 Dekretuak, uztailaren 13ko 200/2010 zenbakidunak aldaraziak, Eusko Legebiltzarrean ordezkatuta dauden alderdi politikoekiko mendekotasun organikoa duten fundazio zein elkarteentzako diru-laguntzak emateko modua arautzen du eta 11.3 artikuluak dioenari jarraituz, urtean urteko laguntza-deialdiaren gainean Kulturako sailburuak hartutako ebazpena entitate interesdun orori jakinarazteaz gain, entitate onuradunak, diru-laguntza jaso duten programak edo jarduerak eta, azkenik, kasuan kasuko diru-laguntzaren zenbatekoa ere publiko egingo dira Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian –Zerbitzu zuzendariaren ebazpen baten bidez–, jendeak horien berri izan dezan.

Hori horrela izanda,

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Eusko Legebiltzarrean ordezkatuta dauden alderdi politikoekiko mendekotasun organikoa duten fundazio zein elkarteentzako 2012ko diru-laguntzetara biltzeko dei egin zuen Kulturako sailburuaren 2012ko azaroaren 7ko Aginduaren bebesean onuradun gertatutako entitateak, diru-laguntza jaso duten programak eta baita horietako bakoitzari esleitutako diru-laguntzaren zenbatekoa ere publiko egitea. Datu horiek guztiak eranskinean daude jasota.

2. artikulua.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urtarrilaren 2a.

Zerbitzu zuzendaria,
IÑIGO CORTÁZAR IBÁÑEZ.

ERANSKINA

A: Espediente zenbakia eranskina

B: Erakunde eskatzailea

C: Programa edo jarduera

D: Behin betiko laguntzaren zenbatekoa (eurotan)

E-2012: 2012ko ekitaldiari dagokion zenbateko osoaren zatia (% 75)

E-2013: 2013ko ekitaldiari dagokion zenbateko osoaren zatia (% 25)

A	B	C	D	E-2012	E-2013
Fund/2012 -01	Fundación Ramón Rubial Fundazioa	Urteko programa: 1.– Ramón Rubial ezagutarazteko jarduerak. 2.– Estola-umeei zuzendutako Ramón Rubial narratiba-lehiaketa. 3.– Ramón Rubial sariak, VI. edizioa. 4.– Ramón Rubial trebakuntza eskola. 5.– «Euskadi Gaur» hitzaldi-zikloa. 6.– Euskal sozialismoaren eta langileriaren mugimenduen artxibo historikoa.	101.637,44	76.228,08	25.409,36
Fund/2012 -02	Fundación sabino Arana Fundazioa	Urteko programa: 1.– Ikerketen sustapena eta bekak. 2.– Hermes: pentsamenduaren eta historiaren gaineko aldizkaria. 3.– Hausnarketa eta eztabaidarako mintzagunea. 4.– Gazteria. 5.– Dibulgaziozko lana eta urtemuga historikoak. 6.– Sabino Arana sarien emate-ekitaldia. 7.– Durangoko euskal liburu eta disko azokan parte hartzea. 8.– Beste erakunde edo instituzio batzuekin sustatutako jardueretan parte hartzea. 9.– Hedapena eta komunikazioa.	65.168,44	48.876,33	16.292,11
Fund/2012 -03	Fundación Popular de Estudios Vacos Fundazioa	Urteko programa: 1.– Jardunaldiak. 2.– Prestakuntza. 3.– Kolaborazioak. 4.– Liburuen elaborazioa. 5.– Terrorismoaren biktimei omenaldi ekitaldia.	18.439,41	13.829,56	4.609,85
Fund/2012 -04	Fundación Alkartasuna Fundazioa	Urteko programa: 1.– Ikasketak. 2.– Mintzaldiak. 3.– Jarduerak. 4.– Liburuen aurkezpena. 5.– Hedapena eta komunikazioa.	754,71	566,03	188,68
			186.000,00	139.500,00	46.500,00